

Garapenerako Politiken Koherentzia
Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak

Coherencia de Políticas para el Desarrollo
en Euskadi: diagnóstico y propuestas

Policy Coherence for Development
in the Basque Country: diagnosis and proposals

proposamena
diagnóstico
policy
diagnostikoa
coherencia
basque
garapenerako
proposals
políticas
diagnosis
development

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak

Coherencia de Políticas para el Desarrollo en Euskadi: diagnóstico y propuestas

Policy Coherence for Development in the Basque Country: diagnosis and proposals



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco:
A catalogue record for this book is available from *Bibliotekak*, the Basque Government library network:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia • Edición • Edition: 1.a, 2015eko iraila • 1ª, septiembre 2015 • 1st, September 2015

Ale-kopurua • Tirada • Print run: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa • Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia • Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo

Internet: www.euskadi.eus

Egileak • Autoría • Authors: Hegoa Institutuaren (UPV/EHU) Garapen eta Lankidetzako Politikei buruzko Ikerketa Taldea
Grupo de Investigación sobre Políticas de Desarrollo y Cooperación del Instituto Hegoa (UPV/EHU):
Koldo Unceta (zuzendaria) Natalia Millán, Yesica Álvarez, Iratxe Amiano,
Jorge Gutiérrez, Irati Labaien, María José Martínez, Michel Sabalza, Unai Villena,
Idoye Zabala

Argitaratzailea • Editor • Publisher: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta maketazioa • Diseño y Maquetación • Design and layout: Marra Servicios Publicitarios, S.L.

Itzulpena • Traducción • Translation: Rosetta Traducción, Interpretación y Servicios Lingüísticos S.L.L.

Inprimatzailea • Impresión • Printed by:

ISBN: 978-84-457-3380-6

Lege Gordailua • Depósito Legal • Legal Record: VI 763-2015

Aurkezpena

30 urte pasa dira Eusko Jaurlaritza eta beste erakunde publiko batzuk, gizarte zibilak bultzatuta, nazioarteko elkartasunerako eta garapenerako lankidetzan parte hartzen hasi zirenetik. Egindako bidea oso aberasgarria eta positiboa izan da. Bide horretan nabarmentzen dira, batik batik, gure erakundeen ekarpen ekonomikoa eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek hegoaldeko herrietako antolakundeekin eta erkidegoekin batera egindako lana –lan hori modu partaidetuan eraikitako arau eta plangintzako esparru baten barruan egin da–.

Lortu nahi dugu lankidetzaren deszentralizatuko gure eredu gero eta solidarioagoa eta efizienteagoa izatea eta euskal gizartean gero eta integratuago egotea. Lankidetzaren deszentralizatuko gure eredu hori eraikitzeko ahaleginak euskal lankidetzaren berraztertzea eta eguneratzea ekarriko du, 2014-2017ko Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailean jasotzen den bezalaxe. Izatez, Garapenerako Politiken Koherentziaren aldeko apustua izango da elkarlanaren funtsezko zutabeetako bat.

Garapenerako Politiken Koherentzia, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin eta elkartasun mugimenduen aldarrikapen tradizionala zena, Eusko Jaurlaritzaren konpromiso global bihurtu da. Horrez gain, euskal lankidetzaren etorkizunari buruzko gogoetaren funtsezko erreferentzia ere bihurtu da; izan ere, garapeneraren erronka berriei eta elkarlanaren munduan sortu diren agertoki berriei egin beharko zaie aurre.


Garapenerako Politiken Koherentziak giltzarri diren erronkak planteatzen ditu, eta euskal lankidetzaren erronka horiei egin beharko die aurre. Erronka horien artean dago erakunde publikoen inplikazio handiagoa, finantzatzaile huts izatetik harantzago joko duena, betiere politika eta eragile desberdinen arteko sinergiak sortzea sustatuta.

Hori dela eta, atsegin handia hartu dugu *"Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak"* azterlan honen argitalpenarekin. Hegoa Institutuaren (UPV/EHU) Garapen eta Lankidetzaren Politikei buruzko Ikerketa Taldeak Eusko Jaurlaritzarentzat prestatu du azterlan hau, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak aginduta.

Nabarmendu nahi dugu azpi-estatu mailako gobernu baten ekimenez egiten den ezaugarri horietako lehen azterlana dela.

Era berean, jakinarazi nahi dugu azterlan hau egiteko prozesuan, Eusko Jaurlaritzako hainbat sail eta erakundetako zenbait pertsonaren inplikazioa handia izan dela, baita Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeena ere, funtsezkoak izan diren hainbat saiotan eta elkarriketatzen hartu baitute parte. Bihotz-bihotzez eskertu nahi dugu horien guztien elkarlana.

Azken gogoeta: txosten hau Euskadin Garapenerako Politiken Koherentzia sustatzeko egin beharreko jauzirako funtsezko tresna izango dela uste dugu, eta hala izan dadin nahi dugu. Azterlan hau argitaratuta, bertan egiten diren gogoetak hedatu eta gizarteratu nahi ditugu, politikaren eta gizarte-mailaren esparrura eraman nahi ditugu, azter eta eztabaida daitezkeen –euskal esparruez harantzago ere–. Horrez gain, planteatzen diren ekimenak Euskadin abian jartzea erraztu nahi dugu.



Paul Ortega

Aurkibidea

Sarrera	7
1. Ikerketaren esparru teorikoa eta analitikoa	9
1.1. Garapenerako Politiken Koherentzia garapenari eta lankidetzari buruzko azken eztabaiden esparruan	9
1.2. Garapenerako Politiken Koherentzia: hurbilpen orokorra	10
1.3. Garapenerako Politiken Koherentziaren tratamenduari buruzko ikuspegiak eta esperientziak hainbat herrialdetan	13
1.4. Garapenerako Politiken Koherentzia eta estatuz azpiko eremuak	15
1.5. Garapenerako Politiken Koherentzia estatuz azpiko eremuetan sustatzeko arazoak eta erronkak: lehenengo hurbilpen bat	16
2. Garapenerako Politiken Koherentzia Euskal Autonomia Erkidegoan: diagnostikoa	19
2.1. Garapenerako Politiken Koherentzia eta garapenerako lankidetzaren politikak Euskadin	19
2.2. Garapenerako Politiken Koherentzia eta Eusko Jaurlaritza nazioartekotzeko estrategiak	21
2.3. Garapenerako Politiken Koherentzia eta horrek EAEn baliatutako barne-politikekin duen harremana	23
2.4. Garapenerako Politiken Koherentzia eta erakunde-egitura Euskadin	25
2.5. Garapenerako Politiken Koherentzia mugatzen eta sustatzen duten faktoreak EAEn: lehenengo hurbilpen bat	26
3. Garapenerako Politiken Koherentzia Euskal Autonomia Erkidegoan: proposamenak	33
3.1. Egindako proposamenen zentzua, esparruak eta garrantzia	33
3.2. Garapenerako Politiken Koherentzian aurrera egiteko estrategia eta lehentasunezko jarduerak	34
Epilogo: Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin, Garapenerako Laguntza Ofizialaz Haratago	39

Sarrera

Hemen aurkezten den testu hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, UPV/EHUren Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuari agindutako txostenaren laburpena da, hain zuzen ere, Euskadiko Garapenerako Politiken Koherentziari (GPK) buruzko azterketaren laburpena. 2014ko apirila eta iraila bitartean gauzatu zen azterketa-lan hori, Garapen eta Lankidetzako Politikei buruzko Ikerketa Taldearen ardurapean (IT 651-13). Txostenaren behin betiko bertsioa honako web gunetan kontsulta daiteke: <http://www.elankidetzeta.euskadi.eus/>.

Garapenerako Politiken Koherentziaren (GPK) gaiari nazioartean gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola kontuan hartuta agindu da lan hori, eta zerikusia du, halaber, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak aspaldi azaldutako premia batekin, alegia, eremu horrek gaur egun Euskadin duen egoerari eta aurrera egiteko aukerei buruzko berariazko diagnostiko bat egiteko premiarekin.

Laurogeita hamarreko hamarraldian sortu zen GPK ikuspegia, Garapenerako Laguntza Ofizialen (GLO) hartzaile diren herrialdeen garapen-prozesuetan eragiten zuten gaien buruzko eztabaidari lotuta. Aurrerago aipatuko den moduan, oso kontzeptu zabala eta dimentsio ugariak bada ere, politiken koherentziaren erronka planteatzearen asmoa argia zen: agerian jartzea zer garrantzi eta eragin duten lankidetzaz bestelako esku-hartzeek –barnekoek zein kanpokoek– beste leku batzuetako garapen helburuetan eta prozesuetan. *Emaille* diren herrialdeetako beste politika batzuek garapenerako lankidetzan lortu nahi diren ondorioak zapuzteko arriskuari buruzko arreta erakarri nahi zen, baina halaber, politika horien ondorioz sinergia positiboak sortzeko aukerari buruzko arreta ere erakarri nahi zen. Hurbilpen teoriko horretatik abiatuta ekin zaio Garapenerako Euskal Politiken Koherentziari buruzko ikerketa honi, euskal politikek beste herrialde batzuetan izan ditzaketen ondorioak aztertuz. Gainera, lankidetzeta-politiken gaineko eraginaren inguruan egin bada ere azterketa, eta ez horrenbeste Euskadiko giza garapenaren ereduaren inguruan, azterketarekin batera doan epilogoan azaltzen da Garapenerako Politiken Koherentziak zer proiektio eduki lezakeen eta eduki beharko lukeen azken gai horretan.

Ikerketaren eremuari dagokionez, zehaztu beharra dago Eusko Jaurlaritzan Garapenerako Politiken Koherentzia sustatzea dela egindako azterketaren berariazko helburua. Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) ezaugarri berezien eta bertako erakundeen

Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak

errealitate konplexuaren ondorioz, gobernuaz haratagoko politika publikoaren beste alderdi batzuk ere kontuan hartu behar dira, nahitaez. Horregatik aipatzen da txostenaren hainbat ataletan erakundeen errealitate hori –Aldundiak eta Udalak barne direla–, errealitate horrek Eusko Jaurlaritzaren politiken koherentzian eragiten duen neurrian.

Txostena hiru partetan banatzen da:

- 1. Esparru teorikoa:** bertan laburtzen dira GPKari buruz dauden eztabaida nagusiak, bai eremu akademikoan bai eremu politikoan, eta estatuz azpiko lankidetzari buruzko hainbat alderdi zehazten dira.
- 2. Diagnostikoa:** bertan aztertzen da GPKaren egoera Euskadin, eta hori bultzatzeko gure esparru zehatzean proposatzen diren gaitasunak eta erronka nagusiak.
- 3. Proposamenak:** hainbat gomendio egiten dira Euskadin GPKaren alorrean aurrera egiteko, gogoeta teorikoetatik eta egindako diagnostikotik abiatuta.

Laburpen betearazle honen bitartez ibilbide labur bat egiten da txosten honetako ataletan eta kapituluetan nabarmendutako osagai nagusietan barrena. Laburpenaren amaieran gogoeta bat aurkezten da, epilogo modura, GPKaren alorreko lanak garapenerako lankidetzaren politikarekin duen harreman bereziaz haratagoko eraginari buruzkoa.

1. Ikerketaren esparru teorikoa eta analitikoa

1.1. Garapenerako Politiken Koherentzia garapenari eta lankidetzari buruzko azken eztabaiden esparruan

Zergatik planteatzen da Garapenerako Politiken Koherentziari buruzko eztabaida?

Azken hamarraldietan nazioarteko sisteman izan diren aldaketen baitan sortutako kezka bat da, izan ere, haiek aldatu egin dute Iparra-Hegoa harreman tradizionalen izaera, nahasi egin dute, oro har, garapenaren agenda, eta estualdian jarri dute bigarren mundu gerra amaitu zenez geroztik funtzionatzen zuen lankidetzaren sistema. Txostenaren 1.1. atalean deskribatzen da prozesu hori, eta aipatzen da, eraldaketa horien guztien ondorioz, Garapenerako Laguntza Ofizialak argi utzi duela zein mugatua den bere eragina ez bada agenda integral batez laguntzen, GPKak proposatzen duen moduan.

GPKarekiko kezkak adierazten du beharrezkoa dela kontuan hartzea garapen-arazoez ez dutela soilik harremana Garapenerako Laguntza Ofizialekin. Era horretara, azken hamarraldietako prozesu globalizatzailearen ondorioz, erabat berregituratu behar izan dira garapen-prozesuen baldintzak munduaren hainbat lekutan –garrantzizko aldaketa izan da hori hainbat eragilek betetzen duten zereginari dagokionez (gobernuak, enpresak, gizarte zibila)– eta aldatu egin da Iparra-Hegoa zatiketa tradizionala; horren guztiaren eraginez, profil lausoagoak ditu nazioarteko sistemak, zeinetan garapen-prozesuetan eragiten duten garrantzizko alderdiak diren elkarren mendekotasuna, arriskua eta ziurgabetasuna.

Aldaketa horiek guztiek eragin zuzena izan dute garapenerako lankidetzaren sisteman eta baita GLOaren helburuetan ere; ondorioz, kolokan jarri da haren esanahia eta zalantzan beraren irismena. Testuinguru horretan, GLOari loturiko lankidetzaren tresna tradizionalak erakutsi dute gero eta handiagoak direla herrialde behartsuenen garapen-arazoei zein garapen globalaren alorreko erronkei aurre egiteko mugak. Horren ondorioz, eztabaida bizia sortu da garapenerako lankidetzaren etorkizunari buruz, eta baita lankidetzaren sistemaren erreformari buruz ere.

GPKarekiko kezkak, garapen arazoez GLOarekin ez ezik, beste arlo batzuekin ere zerikusia dutela adierazten du.

Hainbat erreakzio eta proposamen sortu dira garapenerako lankidetzaren nortasunaren eta legitimazioaren krisiaren aurrean. Sektore ofizialetatik eta lankidetzaren alorreko erakunde tradizionaletatik sortutako proposamenek –esate baterako, Garapenerako Laguntza Batzordetik sortuek (GLB)–, GPKari buruzko gaia planteatu badute ere, bereziki muturreko pobrezia inguruko gaietan jarri dute arreta –Milurtekoko Garapen Helburuetan (MGH) zentratutako agenda bat ezarri dute– eta baita laguntza-katearen funtzionamendu-arazoetan ere –Parisko Adierazpena eta horren garapenak–. Edonola ere, beste sektore batzuen aldetik behin eta berriro adierazi da beharrezkoa dela bai lankidetzaren helburuak berriro definitzea eta kontuan hartzea arazo eta baldintza berriak zein eragileen zeregina.

Testuinguru horretan, GPKarekiko kezka adierazten du beharrezkoa dela kontuan hartzea garapen-arazoen laguntza-politikekin ez ezik garapen-prozesuei aurre egiteko moduarekin ere badutela zerikusia; hau da, ikuspegi askoz ere zabalago batetik, eta era askotako eragileei zein politiken multzoari eragiten diotela, horien artean koherentzia handiagoa egon dadin eskatuz.

Azkenik, aipatu beharra dago GPKa, gaur egungo egoeran, garapenaren kosmopolitizazioari aurre egin ahal izateko eskakizun bat dela, eta orobat herrialde eta gizarte-sektore kaltetuenetatik zein mundu osoari eragiten dioten garapen globaleko arazoetatik etorritako eskaerei erantzuteko eskakizun bat dela. Ildo horretatik, gero eta kontsentsu handiagoa dago –bai akademikoa bai politikoa– lankidetzaren etorkizunari eta garapen global, bidezko eta iraunkorrari buruzko eztabaidaren erdigunean GPKa jartzearen premiari dagokionez.

1.2. Garapenerako Politiken Koherentzia: hurbilpen orokorra

Zer adierazi nahi du Garapenerako Politiken Koherentzia kontzeptuak eta zer ondorio ditu?

Ikuspegi orokor batetik, gobernuaren edozein ekimenen helburua izan beharko luke koherentzia, jardunbide inkoherenteak ondorio negatiboak baitauzka herrialde osoaren eraginkortasunean (bai proposatutako helburuak lortzeko ezintasunari dagokionean eta baita baliabide publikoen kudeaketa optimoari dagokionean ere) eta sinesgarritasunean. Era berean, politiken

GPKa garapenaren ikuspegia gobernu baten politika publiko guztien diseinuan, implementazioan eta ebaluazioan integratzea dela pentsatu beharko litzateke.

koherentzia handiagoa iristeko, hobetu egin beharko litzateke kudeaketa publikoaren kalitatea, koordinazioa eta gardentasuna, interferentziak hautemateko eta osagarritasunak identifikatzeko aukera ematen baitu horrek. Hori dela eta, gobernantza eraginkorra eta kalitatezkoa lortzeko, derrigorrezko maila da koherentzia; 1.2 epigrafeak zehatz-mehatz deskribatzen ditu GPKaren ezaugarriak, dimentsioak, kategorizazioak eta definizioak.

GPKaren helburuak, lehen batean, gobernuen konpromiso orokorra dakar garapenaren sustapenari dagokionez, eta

horregatik da ideia hori bereziki iradokitzailea, haren inplementazioari loturiko arazoetatik haratago. Azpimarratu beharra dago koherentziak *balio instrumentala* duela eta administrazio publikoaren baitan lehentasunezko hartzen diren helburuen mendean jartzen dela. Hau da, hainbat interesek baldintzatu lezakete helburuen, balioen, politiken eta tresnen arteko sendotasuna, eta giza garapena ez da horien artean beti lehentasuntzat hartzen. Gainera, gogoratu behar da sistema demokratiko batean, definizioz, batera izaten direla interes kontraesanak eta legezkoak, eredu politiko askotariko bat osatzen duten iritzi eta talde anitzak ordezkatzeko dituztenak. Beraz, gizabanakoen jokabideak eta lehentasunak modu homogeneoan azaltzen diren kasuetan baino ez da posible erabateko koherentzia, edo erregimen autoritario bat dagoenetan. Lehenengo egoera hori errealitatez guztiz urrun dagoenez eta bigarren kasua giza eskubideei eta askatasunari errespetua dion edozein ikuspegiaren kontrako sistema bat izango litzatekeenez, erabateko koherentzia-maila lortzea helburu bateragaitza eta ez oso desiragarria bihur daiteke sistema askotariko, ireki eta parte-hartzaile batean.

Koherentziaren kontzeptuari heltzeko hainbat kontzeptualizazio teoriko egin badira ere, garapenaren ikuspegiak gobernu baten gobernu-ekimen guztiak zeharkatu behar dituela adierazten dutenak azpimarratu behar dira. Ikuspegi horri *"the whole of government approach"* izena eman diote zenbait herrialde emailek. Teorian, gobernuaren osoko ikuspegi hori onartuz gero, herrialde emaileek lehentasunezko alortzat hartu beharko lukete (nahiz eta bakarra ez izan) garapenaren ikuspegi erabaki publikoak hartzeko prozesuetan. Zentzu horretan, GPKa herrialde bateko politika publiko guztien diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan giza garapena txertatzeko baliabideak hartu beharko litzateke, hau da, garapenaren aldeko lanak gobernuaren ekintza guztiak zeharkatu beharko lituzke. Ikuspegi horrek erantzukizunak partekatzea eragiten du, eta, horren arabera, administrazio publikoaren barneko instantzia guztiek hartu behar dute beren gain erantzukizun hori, lankidetzaren politikari dagokion agendaz haratago. Horrez gain, kosmopolitizatu diren garapen-arazoak kudeatzeko aukera emango duen jardun kolektibo eta hitzartu baterantz bideratzeko premian txertatu behar da Koherentziaren kontzeptua. Ikuspegi horretatik, estatuek ez lukete garapenaren aldeko lana barneko eskalara mugatu behar, aitzitik, nazioz haratagoko erronka berriak beste estatu batzuekin batera lankidetzaren bitartez kudeatzeko mekanismoak ere landu beharko lituzkete.

Gobernu baten borondatea eta konpromiso politikoa funtsezko osagaiak dira Koherentziaren agendan aurrera egiteko.

Hala ere, adierazitako GPKaren osoko ikuspegi baten ontasunez eta gaitasunez haratago, ikuspegi horretarako hurbilpena pixkanakakoa izan da, eta ikuspegi horren helmena ere poliki-poliki zabaltzen joan da. Era horretara, GPKa hasieran *"do no harm"* delakoaren ikuspegitik hartu zen kontuan, hau da, kanpo-lankidetzaz bestelako politikek garapen-prozesuetan izan dezaketen eragin negatiboa ahal beste mugatzen ahalegindu zen. GPKra egindako bigarren hurbilpenak, ordea, haratago joan behar zela eman zuen aditzera, eta kanpo-lankidetzaren baitan beste politika batzuekin zerikusia duten baliabideak eta proposamenak baliatu eta erabili behar zirela, sinergia positiboa sortuz azken batean. Azkenik, osoko ikuspegi kontuan hartuta, GPKak –aurretik aipatu bezala– uztartu egin zituen lankidetzaren helburuei buruzko gogoeta eta barne-garapeneko estrategiak eta garapenaren alorreko erronka orokorrak.

GPKaren jardunari dagokionez, azpimarratu beharra dago funtsezko osagaiak direla borondatea eta konpromiso politikoa alderdi horretan aurrera egiteko. Hori dela eta, GPKa handiagoa lortzeko bidean gobernu batek benetan duen gaitasuna neurtzeko, funtsezkoak dira honako osagai hauek: interes-talde guztien borondate politikoaren azterketa, negoziatorako instantziak, eragile guztiak beren gain hartutako konpromisoak, hauteskunde-estrategiak, botere-kuotak eta interes-taldeen presio bereziak. Testuinguru horretan, azpimarratu beharra dago garapenari buruzko zeharkako konpromisoei aurre egin ohi zaiela erakundeetan, modu gutxi-asko sistematikoan. Hori gertatu ohi da zenbaitetan interes "nazionalak" edo epe laburrekoak eta gizakiaren garapen orokor eta iraunkorraren sustapena kontrajarriak direnaren ustea dagoenean.

GPKa sustatzeko esparru zabala dago nazioartean, batez ere Nazio Batuek, ELGak eta Europar Batasunak osatua.

Gobernuen garrantziaz gainera (bai estatukoak bai estatuz azpikoak) aipatu behar dira GPKaren alorrean parte hartzen duten eragileak, bai maila orokorrean bai nazio mailan. Alde batetik, bada nazioarteko esparru bat, nahiko zabala, GPKaren sustapenerako, estatu nazionalak garatutako politikez haratago doana. Esparru horretan nazioarteko hiru erakundek parte hartu dute, eta hauek beren posiziotik sustatu dute GPKaren aldeko lana: Nazio Batuak –Milurtekoko

Garapen Helburuetan eta post 2015 agendan txertatu dute GPKaren ikuspegia–, Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundea (ELGE) –alderdi horri buruzko lan-taldea txertatu duena– eta Europar Batasuna– zeinak kideei agenda horretan aurrera egiteko eskatu dien. Horrez gainera, aipagarria da CONCORDen jarduera lana (Giza Garapen eta Laguntzarako GKEen Europar Konfederazioa), lan handia egiten baitu Europa mailako politikan eragiteko (ikus 1.2.6 epigrafea).

Bestalde, aipatzekoa da Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) egiten duten lana, funtsezkoak baitira politikan eragiteko, sensibilizatzeko eta mobilizatzeko. GGKEek eremu horietan egindako lanak bultzatuta, konpromiso handiagoa hartu du iritzi publikoak garapenarekin zerikusia duten gaiei buruz, eta horrek lorpen espezifikoak sustatu ditu koherentziaren aldeko lanean.

Azkenik, enpresak ere garrantzizko eragile gisa aipatzen dira, baina beste ikuspegi teoriko batetik. Gauza jakina da horiek ez direla, formalki, gobernuek gauzatzen dituzten politiken arduradunak –ez enpresa horien jatorrizko herrialdeetan, ezta inbertsioen helburu diren herrialdeetan–; hala ere, garrantzizko presio-lana egin ohi dute beren interesak babesteko, eta horrek, zenbaitetan, mugatu egin du gobernu horiek duten gaitasuna giza eskubideen kontrako jardunak, ingurumena babesteko jardunak edo beste batzuk galarazteko edo murrizteko. Ildo horretatik, ezinbestekoa da azterketan enpresen eta horien *lobbien* lana ere kontuan hartzea. Gainera, gobernuek kontrol handia egin behar dute beren jarduerak beste herrialde batzuetan gauzatzeko diru publikoa baliatzen duten enpresen gainean. Zentzu horretan, enpresen ekimenak diru publikoaren bitartez gauzatzen badira, giza garapenaren ikuspegia enpresen jarduera guztietan txertatzeko mekanismoak eskatu beharko lirateke. Era horretara, garapenaren gaineko eraginaren ikuspegitik, enpresa multinazionalak garapen

bidean diren herrialdeetan egiten duten lanaren jarraipenerako eta kontrolerako tresnak garrantzi handikoak dira GKEari dagokionez (ikusi 1.2.8 epigrafea).

1.3. Garapenerako Politiken Koherentziaren tratamenduari buruzko ikuspegiak eta esperientziak hainbat herrialdetan

Zer esperientzia praktiko dago Garapenerako Politiken Koherentziaren agenda bat aplikatzeari dagokionez?

Esperientzia oraindik mugatua bada ere, azken urteotan herrialde emaleetako hainbat gobernuak (hala nola Austria, Erresuma Batua, Norvegia eta Alemaniak) GPKaren gaiari heldu diote, eta alor hori sustatzea helburu duten plangintzak eta tresnak jarri dituzte bereziki abian. GPKari dagokion eredu bat ez badago ere, hainbat esperientzia egin dira, eta, horien emaitzak elkarren guztiz bestelakoak izan direnez, sortzen diren arazo praktikoak argitzeko balia daitezke. Helburu horretarako, txostenak –1.3. atala– modu berezian aztertu du GPKa bideratzeko modua hiru kasu jakin hauetan: Suedia, Holanda eta Espainia.

Suedia da, beharbada, GPKaren eremuan egindako aurrerabideen adibide argiena, bertako Garapenerako Politika Orokorriari esker. Politika horrek oinarrian duen doktrinaren ondorioz –teorian behintzat– ministerio guztiek txertatu behar dituzte garapeneraren alorreko helburuak beren politiken baitan. Ministerio bateko ekimen bat ez badator bat garapenerako interesekin, orduan, ministerio hori izango litzateke irtenbide alternatibo bat aurkitzeko arduraduna, herrialde pobreenen interesei kalterik eragin gabe. *Garapenerako Politika Orokorra* ezarri denetik, gobernuak ahalegin handiak egin ditu koherentzia gobernuko arlo guztien eskumena dela esplizituki adierazteko, lankidetzaren alorreko sailen eta agentzien erantzukizunetatik haratago. Garapenerako lankidetzak garrantzizko rola betetzen du, ministerioei jakinarazten baitie, etenik gabe, zer eragin izan ditzaketen beren politikek Hegoaldeko herrialdeetan. Edonola ere, suediar gobernuak behin eta berriro adierazi du, modu sistematikoan, GPKa ministerio guztien zeregina dela eta ez bakarrik nazioarteko lankidetzaren alorrari dagokiona. Eta, aldi berean, GPKa kontsentsu bidez adostutako politika gisa planteatu da, akordio zabal bat dakarrena ondorioz, uanean uneko gobernuaz haratago.

Herrialde emaleetako hainbat gobernuak heldu diote GPKaren gaiari, eta eremu horretako plangintza eta tresna espezifikoak jarri dituzte abian.

Holandak, ikuspegi integral horren aurrez aurre, estrategia fokalizatu bat eraman du aurrera GPKa sustatzeko. 2002an sortutako Politiken Koherentziarako Unitate baten inguruan egiten da lan hori. Batasun horrek, zuzenean edo zeharka, gobernuaren jardueraren hainbat eremutan koherentzia sustatzeko asmoz diharduten mekanismo asko elikatzen edo sustatzen ditu edo horietan parte hartzen du. Adibide gisa aipatu litezke Europar Batzordearen proposamenak

berrikustea eta jarraitzea, ministerioen arteko lana dinamizatzea edo garapen-eremu zehatzei buruzko ezagutzarako ikerketa eta mintegi bereziak sustatzea. Testuinguru horretan, holandar doktrinak ezartzen du edozein politika publikok sustatu beharko dituela Holandaren interesak. Dena dela, ez da emaitzen edo bazkideen interesen artean aukeratu behar den batura zero joko bat; aitzitik, holandar estrategia *elkarren onuraren* oinarrian kokatzen da. Era horretara, lankidetzaren politikaren oinarri den argumentuaren arabera, garapen orokorra sustatzeak Holandari ere ekarriko dio onura, epe luzera mundu seguruago bat eraikitzeko eta merkataritzan jarduteko aukera gehiago eskainiko dizkigulako, epe luzera. Ondorioz, kanpo-politikako estrategietan lotura estua dute garapenaren eta segurtasunaren alorreko helburuek. Ikuspegi horretatik, koherentzia ezinbesteko printzipioa izango litzateke herrialde pobreenen garapena sustatzeko, helburu horietarako bideratzen diren baliabide publikoak optimizatzeke eta kanpo-politiken arrakastarako aukerak handitzeko.

Espainiari dagokionez, 2004. eta 2010. urteen bitarteko aldirian, GPKaren agendak espainiar agiri estrategikoetan nolabaiteko zeregina betetzen zuenean, hainbat mekanismo proposatu ziren, baina haietan ez ziren zehaztu ez eragileen arteko erlazio-prozesuak eta -bideak, ezta sustatu beharko liratekeen osagarritasunak ere. Geroago, ez da inolako programarik definitu GPKa sustatzeko eta inplementatzeko, ezta hura ezartzeko metodologia eta agenda azaldu eta testuinguruan kokatuko duenik ere. Ildo horretatik, Espainian ez dirudi finkatu denik GPKari dagokion konpromiso politikorik. Garapenaren aldeko zeharkako lanari dagozkion hainbat murrizketa politiko eta teknikoren bitartez azaltzen da, nonbait, konpromiso politiko erreal eta oinarritzorik eza. Politikaren maila garaienean ez dago jarraibide sendo eta trinkorik Espainiako politika publikoek garapenerako ikuspegia txertatu dezaten, eta horrek erakusten du ikuspegi debaluatua dagoela garapenaren aldeko lanari dagokionez. Gainera, gobernuaz haratago, ahultzen joan da garapenerako politikak babesteko parlamentuan zegoen tarte eskasa, ekonomia krisiaren ondorioz agenda politikoan egin diren aldaketak direla-eta.

Ebidentziak erakusten du, halaber, Espainiako eragile askok ikuspegi eta oinarri nahiko mugatua dutela garapenaren alorreko estrategiei eta erronkei buruz. Kanpo-politikari dagokionez, lehentasunen agenda bat ezarri da Espainian, zeinetan oso argi bereizten den politika "gogorra" edo goi-politika eta politika "biguna" edo behe-politika. Agenda gogorreko testuinguru horretan, Espainia beste herrialde batzuekin "lehiatzen" den marka da, eta, hortaz, dinamika horren barruan daude bertako herritarrak. Espainia Markaren estrategiak beste ezerk baino hobeto azaltzen du ikuspegi hori, eta horren arabera onartzen da nazioarteko sistema merkatu bat dela, zeinetan "marka" bakoitzak –herrialde bakoitzak– ahalegina egin behar duen atzerriko inbertsioak eta nazioarteko kontsumitzaileen arreta erakartzeko, eremu publikoaren merkaturatze-prozesuak sustatzen eta/edo sendotzen laguntzen duen ikuspegi baten barruan.

Edonola ere, esperientzia batzuen eta besteen eragina alde batera utzita, GPKak topatzen dituen mugek zerikusia dute garapena, solidaritatea eta nazioarteko erantzukizuna ulertzeko moduari eragiten dioten hainbat gairekin, baina halaber eragiten dituzte eragozpen burokratikoak, logika korporatiboak eta beste interes batzuk, erabakiak hartzeko prozesuei eragiten dizkietenak.

1.4. Garapenerako Politiken Koherentzia eta estatuz azpiko eremuak

Nola txertatu beharko litzateke GPKa estatuz azpiko eremuetan eta lankidetzan, eta zein izango liriateke lan horren gaitasun nagusiak?

Azken hamarraldietan poliki-poliki onartzen joan da tokiko gobernuek betetzen duten zeregina garapenaren sustapenari eta iraunkortasunari dagokionez, bai hurbileneko esparruan bai testuinguru orokor batean. Txostenaren 1.4 epigrafean azaltzen den moduan, beharrezkoa da indartzea tokiko eragileek garapen orokorreko agendan betetzen duten zeregina, eta, gainera, gardentasun-prozesuak eta kontuak emateko prozesuak txertatu behar dira gobernuen legitimitate demokratikoa handitzeko eta gizarte zibilarekiko harremana estutzeko. Era horretara, post 2015 agendari buruzko eztabaidan aurrera egin ahala, tokiko gobernuek eta agintariak betetzen duten funtsezko zeregina onartzen eta txertatzen ari da, bai agenda hori egituratzeko prozesuan bai tokiko garapenaren sustapenerako politika eta programa zehatzen esleipenean. Garrantzi handiko eremua da, izan ere, onura eta galera publiko orokorrak kudeatzeko maila askotako gobernantza orokor baterantz jo nahi bada, beharrezkoa da tokiko eragileak eta gobernuek txertatzea nazioz haraindiko agendan, beren hurbiltasunagatik funtsezko osagaiak direlako garapen iraunkorraren sustapenean eta pobreziaren kontrako borrokan.

Azken hamarraldietan poliki-poliki onartzen joan da tokiko gobernuek garapenaren sustapenari dagokionez betetzen duten zeregina.

Horrez gainera, globalizazioak, halaber, prozesu sozialen, politikoen, ekonomikoen eta kulturalen egitura berri bat eragin du. Era horretara, globalizazioa gertaera guztiz konplexua denez, bere baitako jarduerak antolamendu bat eta gauzatzeko leku bat behar dute; hori dela eta, tokiko esparruek funtsezko zeregina betetzen dute prozesu horretan. Era horretara, garapen-estrategietan lurraldeko eragileen garrantzia nabarmendu da, eta ondorioz, gero eta argiago ikusi da nazioarteko lankidetzan bete dezaketen zeregina. Testuinguru horretan, tokiko lankidetzak edo laguntza deszentralizatuak garrantzizko lekua hartu du, azken hamarraldietan tokikoari buruz sortutako kezka berriekin sintonian.

Azpimarratu beharra dago estatuz azpiko lankidetzan parte hartzen duten eragileek herritar kritikoak eta garapenaren inguruko arazoezko konprometituak sustatzeko garaian duten ahalmena. Era horretara, garapenerako sentsibilizazio- eta hezkuntza-programak funtsezko osagaiak dira iritzi publikoak kontzientzia har dezan zein garrantzizkoa den nazioarteko solidaritatea edozein politika publikoren (tokikoa, nazionala zein nazioartekoa) derrigorrezko dimentsiotzat hartzea. Hala, tokiko gobernuek oso egoera onean daude lankidetzan-jardueretan modu aktiboan parte hartzeko: lankidetzan horren zerbitzura jartzen dituzte beren baliabideak, tokiko garapenaren alderdi guztiak sustatzen dira, eta laguntza ematen dute, GPKaren ikuspegitik, garapen-programak beste herrialde eta lurralde batzuetan aurrera eramateaz arduratzen diren instituzio eta erakundeak sendotzeko.

Ikerketa gutxi egin dira GPKari buruz estatuz azpiko eremuetan, izan ere, estatuaren ikuspegitik ekin izan zaio tradizioz agenda horri.

Aipatu beharra dago, edonola ere, GPKaren gairi egindako hurbilpenek ez dutela eragin berdina estatuz azpiko gobernuetan. Alde batetik, beste herrialde batzuetan garapen-prozesuetan eragin negatibo handiena duten politika asko eta asko –merkataritzari, nekazaritzari, zerga-sistemari, patenteei buruzko legediari eta abarri dagozkionak– gobernu estatalen edo Europar Batasunaren mende daude; beraz, mugatuak dira horietan eragiteko aukerak. Edonola ere, sinergia positiboak sortzeari

dagokionez, lankidetzaren eremuan beste politikekin lotura duten baliabideak baliatu eta erabiliz gero, jarduteko aukera gehiago dago.

Eskasak dira gaur egun oraindik GPKari buruzko azterketak estatuz azpiko eremuetan, baina gai hori txostenaren 1.4 atalean azaltzen da zehatzago. Edonola ere, bertan aipatzen den bezala, ulertu beharra dago GPKa giza garapenaren eta iraunkortasunaren aldeko osoko lana dela, eta nahitaez bildu beharko lituzkeela ekimen politiko publikoaren maila guztiak (globala, eskualde mailakoa, nazionala eta tokikoa). Ildo horretatik, aintzakotzat hartu behar da tokikoaren ikuspegia GPKaren aldeko lanean txertatzea.

1.5. Garapenerako Politiken Koherentzia estatuz azpiko eremuetan sustatzeko arazoak eta erronkak: lehenengo hurbilpen bat

Zein dira GPKa estatuz azpiko eremu batean sustatzeko funtsezko osagaiak eta mugak?

Itxura denez, funtsezko zenbait osagai daude estatuz azpiko gobernuetan GPKaren agenda txertatzeko, 1.5 epigrafean zehatz-mehatz adierazten den moduan eta laburpen betearazle honetan azaletik deskribatzen den bezala.

Lehenik, bai estatu mailan bai udalen eremuan, borondate politikoa da GPKa sustatzeko oinarrizko osagaia. Eragile dezentralizatuen kasuan beharrezkoa da azterketa honetan botere-harremanak eta estatu mailako gobernuen politikak ere kontuan hartzea. Ildo horretatik, estatuz azpiko gobernu batek konpromiso sendoa badu ere giza garapenaren aldeko lanarekin, aurrerabidea oso mugatua izango da, baldin eta gobernu zentralaren jarraibide politikoak eta helburuak agenda horretatik urrun badaude. Beraz, funtsezkoa da GPKaren aldeko lanak gobernu zentralarekiko zein beste erkidego eta tokiko gobernuetikiko koordinazioa eta osagarritasuna ekartzea ondorioz.

Bigarrenik, estatuz azpiko gobernuen politika publikoen diseinuari eta inplementazioari dagokionez zer gaitasun dituzten aztertu behar da. Eta horrek eragina du eremu horretan

GPKara egiten den hurbilpenean. Alde batetik, beste herrialde batzuetan bereziki eragin negatiboa duten zenbait politika – aurretik esan bezala- goragoko mailetako beste instantzia batzuetan diseinatuak eta kudeatuak dira. Baina, aldi berean, badaude berezko jarduera-eremuak, zeinetan estrategien arteko sinergien eta osagarritasunen bilaketak garrantzi berezia izan dezakeen GPKaren ikuspegitik.

Hirugarrenik, giza garapenarekin kritikoak eta konprometituak diren herritarrak funtsezko osagaia izan litezke gobernuari presioa egiteko, beren politika publikoetan GPKa handiagoa aplikatu dezaten. Alderdi kritikoa da hori tokiko gobernuetan, herritarrengandik hurbilago dagoelako haien prestakuntzari eta hezkuntzari dagokionez.

GPKa sustatzeko hainbat osagai funtsezko daude, Estaturaz azpiko eremuan, kontuan hartu beharrekoak: borondate politikoa, lankidetzaren sistema, konpetentzia-eremuak, iritzi publikoa eta GGKEak.

Laugarrenik, gizarte-antolamendu mota desberdinak dituzten tokiko gobernuen hurbiltasunari esker, erakundeak sendotzeko programak gauzatu litezke erakunde horiek lan zabal eta sistematikoagoa egin dezaten GPKa sustatzeko, bai giza garapenarekin koherenteak ez diren jardunbideen jarraipena eta kritika egiteko, bai garapenerako hezkuntzari dagokionez.

Bosgarrenik, estatuz azpiko administrazioak eremu hurbilagoetan eratzea eta eragile gutxiagotara mugatzea osagai positibotzat har daitezke GPKari dagokionez, baina, horretarako, partekatu egin behar dira erabakiak gobernu baten baitako sektoreen artean eta adostu egin behar dira prozesuak. Edonola ere, kudeaketa publikoaren ikuspegi partekatuaren aldeko ingurune bat behar da, jardunbide bertikaletatik eta/edo zatituetatik urrun.

Seigarrenik, gogoan eduki behar da GPKaren alorrean emaitzak lortzeko beharrezkoa dela konpromiso politiko abstraktuak gainditzea eta helburu zehatzak eta mekanismo espezifikoak ezartzea. Alderdi horretatik, GPKaren sustapenerako lehentasunezko eremuak identifikatu behar dituzte, konpromiso eta helburu zehatzak (eta mailakatuak) definitu behar dituzte alor horietan tokiko gobernuak, eta jarduera-programa zehatzak diseinatu behar dituzte.

Azkenik, bereziki GPKa sustatzen duen faktoreetako bat ikuspegi tekniko eta politikotik sendotuta dagoen lankidetzaren sistema bat eratzea da. Hori, ordea, muga bat izan liteke estatuz azpiko hainbat gobernurentzat, ez baitituzte beti lankidetzaren sistema sendotuak edukitzen eta ez baitira giza baliabide eta baliabide tekniko egokiez hornituta egoten.

2. Garapenerako Politiken Koherentzia Euskal Autonomia Erkidegoan: diagnostikoa

2.1. Garapenerako Politiken Koherentzia eta garapenerako lankidetzaren politikak Euskadin

Nola txertatzen da GPKaren ideia euskal lankidetzaren legezko esparruan, eta nola ikusten dute bertako eragileak?

Euskadin nahiko esparru zabala dago garapenerako lankidetzaren eremuko araudiari eta plangintzari dagokionez. Esparru horretan, lankidetzaren alorreko politika arautzeko helburua duen agiri aukera zabala dago, hala nola legeak, plangintza zuzendariak, araudiak eta deialdiak. Azterketa honetako 2.1 atalean zehaztasunez azaltzen da nola erabili den GPKaren kontzeptua euskal lankidetzaren alorreko agiri ofizialetan, bereziki honako hauetan: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legea (2007), Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Legea (2008) eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarako plan zuzentzaileak (2004, 2008 eta 2014). Kontuan hartu da, halaber, euskal GGKEk gai horren aurrean duten jarrera.

2007an aldarrikatu zen *Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legea*, eta bertan biltzen dira gai horri buruzko politika arautzen duten helburuak, erronkak, instrumentuak eta tresnak. Adierazgarria da Lege horren sarreran bertan aipatzen dela, zehazki, lankidetzaren politikaren eta gainerako politika publikoen artean koherentzia handiagoa lortzeko beharra. Legeak finkatzen du, halaber, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak txosten bat osatu beharko duela urtero euskal administrazio publikoen jardunbideen koherentzia zer mailataraino betetzen den azalduz.

Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziaren Legea, bere aldetik, hainbat aipamen egiten dizkio koherentziaren printzipioari, nahiz eta kontzeptu hori euskal lankidetzaren eragileen arteko sendotasunean eta koordinazioan aurrera egiteko bideratuta dagoen batez ere eta ez horrenbeste Eusko Jaurlaritzaren politika publiko guztien garapen iraunkor eta bidezkoaren ikuspegi integralera bideratua.

GPKari buruzko agindua pixkana txertatzen joan da euskal lankidetzaren agiri ofizialetan

Azkenik, euskal lankidetzaren hiru egitasmo zuzentzaile eta estrategikoak GPKaren agindua txertatzen joan dira, pixkana, beren orientabide estrategikoetan. Era horretara, *Euskal Lankidetzaren Lehenengo Plan Estrategiko eta Zuzentzailean* (2004) GPKaren kontzeptuaren aipamen berezirik egiten ez bada ere, bertan aipatzen da pobreziaren arazoak eta giza zaugarritasunari dagozkionak egiturazko kausen ondorio direla eta Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen arteko harreman asimetrikoei dagozkiela (Eusko Jaurlaritza, 2004). Era berean, *Euskal Lankidetzaren II. Plan Estrategiko eta Zuzentzaileak* aurreko agiriaren antzeko ildo teoriko eta analitikoari jarraitzen dio, oinarrizko premisatzat hartuz giza garapenaren sustapenera orientatu behar dela nagusiki nazioarteko komunitatea.

Amaitzeko, *Garapenerako Lankidetzaren Lau Urteko III. Plan Zuzentzaileak* (2014) modu sistematikoan erabiltzen du koherentziaren kontzeptua agiri osoan zehar. Agiri horretan azpimarratzen da beharrezkoa dela koherentziaren alorrean aurrera egitea, kontzeptu hori modu berean erabiliz adierazteko lankidetzaren alorreko euskal politikaren eragileen eta aktoreen arteko koordinazioa, osagarritasuna eta sendotasuna lortzea premiazkoa dela – politika horretan parte hartu lezaketen sailak sartuta–, eta baita GPKaren kontzeptu zabalenera buruz aritzea ere, zeinaren arabera euskal politika publikoen multzora eta horiek garapenean duten eraginera zabaldu behar den begirada.

Gizarte zibilar dagokionez, GGKEek garrantzizko zeregina bete dute Euskadin GPKa eskatzeko, 2.1.3 atalean azaltzen den moduan. Zentzu horretan, garrantzizkoa da azpimarratzea GGKEen Koordinatzaileak eta bereziki horren baitan eraturako eragin politikoko taldeak GPKari buruz egindako lana, horrek egiten baitu euskal erakundeetan lankidetzako politika publikoen jarraipena. Oraingoan, GPKari buruzko diskurtsoa sortzera bideratu da talde hori, eta baita gai hori Euskadiko garapenerako lankidetzari buruzko eztabaidaren agendan txertatzen ahalegintzera ere, nahiz eta oraindik ez den gai horri buruzko proposamen zehatzik osatu.

GGKEen Koordinatzaileak osatutako *Eragin politikorako esparru-agiria* izenekoan funtsezko zortzi posizionamendu biltzen dira eragin-lana orientatzeko. Horietako batek –bigarrenak–

Euskadiko GGKEen Koordinatzaileak eragin politikoko talde bat du. GPKen sustapena bere helburu nagusien artean dago.

GPKaren sustapenean jartzen du arreta. Horrek esan nahi du, gizarte zibila osatzen duten eragileez osatutako mekanismo bat dagoela GPKaren alorreko agenda politiko bat sustatzera zein giza garapenarekin koherenteak ez diren politiken jarraipena egitera bideratua. Edonola ere, aipatzekoa da oso prozesu berria dela, eta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan GPKaren agenda sustatzeko balioa izan badu ere, ez du politika publikoen jarraipena, ebaluazioa eta kontrola egiteko mekanismorik oraindik garatu.

Gainera, aipatu beharra dago GGKEetan ezagutza eta *know how* handia dagoela pobretutako herrialdeen garapenera eta egiten diren prozesuekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Esperientzia hori, hainbat eremutako lanaren ondorioz bildua –hala nola generoaren alorrean, garapenerako hezkuntzan edo osasunaren alorrean–, interes handikoa izan liteke GPKarekin zerikusia duten arazoak aztertzeko eta horiei buruzko proposamenak osatzeko.

Hala ere, beharrezkoa da aipatzea, GGKEek, gaitasun horiez gainera, hainbat muga dituztela GPKaren eremuan jarduteko. Era horretara, jarraipena egiteko eta proposamen zehatzak osatzeko beste ezagutza aditu batzuk behar dira, eta ez da beti halakorik egoten era horretako erakundeetan. Hori bereziki garrantzitsua da gaur egungo testuinguruan, izan ere, gero eta handiagoa da politika publikoen konplexutasuna eta gero eta espezializazio-maila handiagoa eskatzen du horien jarraipenak eta kritikak.

2.2. Garapenerako Politiken Koherentzia eta Eusko Jaurlaritza nazioartekotzeko estrategiak

Nola txertatu dira garapenerako lankidetzaren eta giza garapeneraren kontzeptua Euskadiko nazioartekotzeko estrategietan?

2.2 epigrafean nazioartekotzeko politikarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzaren agiriak aztertzen dira oro har, horiek garapenerako lankidetzaren politikatik abiatuta proposatu diren helburuekin duten harremana aztertzekeko helburuarekin. *2014-2016 Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Basque Country estrategia* nazioarteko gainerako estrategiak orientatu, mugatu eta bildu behar dituen aterkia dela esan liteke. *Basque Country* strategiaren barruan hiru jardueraren-eremu nagusi aztertzen dira:

1. Kanpo Ekintza Plana, euskal interesak kanpoan sustatu eta Euskadi eragile global gisa kokatu nahi duena.
2. Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2014-2016, eragile nagusi euskal enpresak dituen.
3. Nazioartekotzeko Sektoreko Planak, oraindik egin gabe daudenak, nahiz eta zenbait sailek dagoeneko parte hartu duten *Basque Country* Strategiaren osaeran.

Nazioartekotzeko Esparru Estrategiak adierazten du nazioarteko solidaritatea eta garapenerako lankidetzaren garrantzizko jardueraren-eremuak direla, eta hori, aldi berean, gertaera positiboa da GPKaren azterketarako. Era horretara, *Basque Country* Strategiaren aurkezten den ikuspegiak oinarri hartzen du garapeneraren sustapena eta erronka globalen kudeaketa partekatua, derrigorrezko helburua eta dimentsioa direla kanpoko euskal jardueraren publikoan. Era berean, mundu bidezkoago eta orekatuago bat osatzen laguntzea da Kanpo Ekintza Planaren helburuetako bat, eta hori, aldi berean, oso alderdi positiboa da GPKaren ikuspegitik.

Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotzeko planetan nazioarteko lankidetzaren dimentsioa hartzen da kontuan.

Beste alde batetik, *Kanpo Ekintza Planak* adierazten du koherentziaren printzipioa dela bere oinarrietako bat, eta hori ere oso abiapuntu ona da. Edonola ere, *Nazioartekotzeko Esparru Estrategiak* zein *Kanpo Ekintza Planak* erakusten duten munduaren ikuspegiaren arabera,

Edonola ere, garapenerako lankidetzak konpartimentuetan zatitua eta euskal kanpo-ekintzatik bereizirik ikusten da.

elkarren ondo-ondoan daude eta elkarren osagarri dira lehiakortasunarekin zerikusia duten helburuak batetik eta ongizatearekin eta garapenarekin zerikusia dutenak bestetik, horien artean gatazkak sor litezkeela kontuan hartu gabe. Horrek azaldu dezake zergatik ez diren txertatu aipatutako koherentzia ziurtatzeko mekanismo bereziak, berau asmo-aitorpen hutsera alboratuz. Ikuspegi hori euskal interesen sustapena atzerrian bat datorrela nazioarteko ordena bidezkoago eta iraunkorrago baten konfigurazioarekin ezartzen denean atzematen da; adierazpen horrek saihestu egiten ditu eremu horretan

egon litezkeen gatazkak. Aipatu beharra dago, alderdi horretatik, GPKa handiagoa lortzeko garapenaren ikuspegia txertatu behar dela ekintza publikoan, eta, horrek, praktikan, hainbat eztabaida eta gatazka eragin ditzake, eta garrantzizkoa da horiek atzementea, agenda honetan zehaztasunez aurrera egiteko. Horregatik, euskal interesak eta bertako enpresak kanpoan sustatze hutsak garapen orokorrari lagun diezaiokeen ideia hurbilpen nahasgarria izan liteke eta ez dago oso egokitua GPKan lan egiteak sortzen dituen benetako erronketara. Batez ere kontuan hartzen badugu estrategia horrek ez dituela kontuan hartzen atzerrira zabaltzeko diru-laguntzak jasotzen dituzten enpresei giza eskubideen, ingurumenaren alorrean eta beste alor batzuetan jarduera-baldintza jakin batzuk betetzera behartuko dien mekanismoak.

Nazioartekotzeko estrategien barruan garapenerako lankidetzak txertatzeari dagokionez aipatu beharra dago euskal kanpo-ekintzaren ardatzen barruan berariaz aipatzen bada ere gai hori, mendekotasunez edo strategiaren gainerako ataletatik bereizirik aipatu ohi dela. Lankidetzak politika jarduera-eremu sektorialen barruan sartzen da, baina ez zaio *Enpresak Nazioartekotzeko Planari* edo *Kanpo Ekintza Planari* egiten zaion arreta egiten. Horrez gainera, estrategiak, oro har, lehiakortasuna bilatzearen alde egiten duela ematen du hasieratik, laguntzaren edo lankidetzaren alde baino gehiago, eta horrek ondorio argia du estrategian oro har, garapenerako lankidetzak bigarren mailakotzat edo mendekotzat hartzen baita. Gai horri dagokionez egin litekeen interpretazioa kontraesanek beteta dago. Alde batetik, alderdi positibo bat izan liteke, manipulazio-arriskuetatik babesten duelako lankidetzak politika, hau da, giza garapenaren sustapenetik eta pobrezia kontrako borrokatik urrun dauden helburuak sustatzeko erabilia izatetik babesten duelako. Horren aurrez aurre, ordea, eta GPKaren ikuspegitik, lankidetzak politika "isolatzeko" ideia negatiboa gerta liteke, izan ere, konpartimentuetan banatutako eremutat eta eremu berezitat hartzen denez, gainerako departamentuek uler dezakete garapenaren sustapena eta pobrezia kontrako borroka lankidetzaren helburuak baino ez direla eta orobat pentsa dezakete ez dela sail guztiei dagokien zeharkako erantzukizuna, GPKaren ideiatik ondorioztatuko litzatekeen bezala.

Koherentziaren kontzeptua koordinazio eta osagarritasun moduan erabili ohi da oro har, eta kontzeptu horren ikuspegi guztiz mugatua edo ahula da hori.

Azkenik, aipatu beharra dago ez dagoela GPKaren agendan aurrerabideak sustatzeko gai izango den mekanismorik. Alde batetik, *Kanpo Ekintza Planean* nabarmen ikusten da koordinazioa eta koherentzia hobetzeko kezka. Baina koherentziaren kontzeptua EAetik kanpoko erakundeen eta eremuen arteko koordinazio eta osagarritasun gisa erabili ohi da oro har, eta hori kontzeptu horren ikuspegi

guztiz mugatua edo ahula da. Bestalde, ez da garapenaren ikuspegia euskal administrazioaz kanpoko jardueran txertatzea sustatu edo bermatuko duen jarduera ildorik edo mekanismorik ezarri.

2.3. Garapenerako Politiken Koherentzia eta horrek EAEn baliatutako barne-politikekin duen harremana

Nola aztertzen dira garapenaren gaiak EAEn barneko estrategietan?

Nazioarteko estrategiak aztertu ondoren, txostenak atal bat eskaintzen dio EAEn barneko estrategien azterketari eta baita bertan garapenaren alorreko gaiei egiten zaien arretari ere. Ildo horretatik, 2.3 atalean azalduko ditugu Eusko Jaurlaritzako sailek egindako planei buruzko azterketatik ateratzen diren ondorio nagusiak, GPKaren ikuspegitik adierazgarrienetakotzat hartu litezkeen alderdiak identifikatzeko helburuarekin. Azterketa egiteko unean onartuta zeuden eta/edo gauzatzeko fasean zeuden agiriak aztertu dira. Hona hemen aipatutako agiriak: *Bake eta Bizikidetzeta Plana 2013-2016; Enplegu Plana 2014-2016 (Enplegua Sustatzeko Programa); Industrializazio Plana 2014-2016; Berrikuntza Publikoko Plana 2014-2016 (Euskadiko Berrikuntza Publikoko Estrategia); EAEn Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VI. Plana; Osasun Plana 2013-2020 (Euskadirako Osasun Politikak); Euskararen Agenda Estrategikoa; Ingurumenaren IV. Esparru Programa 2020.*

Horri guztiari lotuta, lehenik azpimarratu beharra dago zein garrantzizkoa den *giza garapenaren* baieztapena, politika eta strategi horien kontzeptu egituratzaile gisa. Egia bada ere, ideia hori aipatze hutsak ez du bermatzen proposatutako eskakizunak kontuan hartuko direnik; egia da, halaber, hori eskatzea –gobernuaren programaren frontispizioan bertan– abiapuntu ona dela, aukera ematen baitu norabide horretan aurrera egiteko modu eraginkor eta koherenteenari buruz eztabaida egiteko. Edonola ere, eta aipatu bezala, giza garapenaren ikuspegia politiken multzoan zeharkatzeko zailtasunak daudela ikusten da, eta horietako zenbaitetan adierazpen orokor gisa erakustera mugatzen da. Ildo horretatik, tratamendu zabalago eta dimentsio anitzeko bati buruz hitz egin liteke gizarte izaera handiagoko politikei dagokienez –osasuna edo berdintasuna–, jarduera produktiboaren gune gogorrean eta/edo enpresen zereginarekin zerikusia dutenetan kokatzen direnei dagokienez baino. Gai hori dela eta esan liteke ikuspegi osagarri baten aldeko apustua egin dela ikuspegi integratzaile baten alde baino gehiago; modu honetan, politika batzuetan beste politika batzuetan ez dauden garapenaren dimentsioak hartuko dira kontuan, lehiakortasunarekin zerikusia duten faktoreak aztertu eta/edo sustatzera mugatzen direnak alegia.

Eusko Jaurlaritzaren hainbat agiritan politika publiko askoren kontzeptu egituratzaile gisa hartzen da giza garapena.

Aurretik aztertutako nazioarteko politikak ez bezala, etxeko politiketan erreferentzia gutxi egiten zaio nazioarteko esparruari eta gauzatutako politiken kanpoko dimentsioari. Ildo beretik, agiri horietako gehienek ez dituzte lankidetzari, nazioarteko solidaritateari edo garapenaren

erronka orokorreki buruzko gaiak aipatzen. Horren guztiaren salbuespena da, zalantzarik gabe, *Ingurumenaren IV. Esparru Programa*, zeinak nazioz haraindiko azterketaz gainera berariaz aipatzen duen herrialde kaltetuenezikiko nazioarteko solidaritatea eta txertatzen duen politiken koherentziaren kontzeptua. Baina kasu berezi horretaz haratago, ikuspegi orokor batek berresten du lankidetzaren politika Euskadin garatzen diren gainerako politika publikoetatik bereizirik dagoen osagai bat dela eta politika horrek berezko helburuak, ikuspegiak eta lehentasunak dituela.

Lankidetzaren politikan baliatzen diren oinarri teorikoak eta analitikoak Eusko Jaurlaritzaren zenbait politiken oinarri zuzentzaileetatik urrun daude (eta zenbaitetan kontrakoa ere adierazten dute).

Era horretara, Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategikoen eta Zuzentzaileen eduki eta azterketatik erraz ondoriozta daiteke lankidetzaren politikan erabiltzen diren oinarri teoriko eta analitikoak ez dagozela bat (zenbaitetan kontraesanean egonik) Eusko Jaurlaritzaren politika publikoko beste plan batzuen oinarri zuzentzaileekin. Era horretara, lankidetzaren alorreko agirietan defendaezintzat hartzen den eredu batek sortutako asimetriei eta desberdintasunei buruz era kritikoa gogoeta egiteko premia adierazten da; Ekonomia eta Lehiakortasun Sailaren eremutik hurbileneko planetan, aldiz, eredu horretan erabat txertatzearen alde egiten dute, euskal enpresak nazioartekotzearen, lehiakortasunaren aldeko lehentasunezko apustuaren eta merkatu berriak zabaltzearen bitartez.

Aztertutako beste alderdi bat politika batzuen eta besteen arteko koordinazioak sortzen duen kezka dagokiona da. Kualitatiboki bestelako gai bat da, baina aztertzea komeni dena, laguntza handikoa izan daitekeelako eta lehenengo urratsa izan baitaiteke koherentziarako bidean. Ildo horretatik, beharrezkoa da azpimarratzea aztertutako plan guztietan aipatzen dela modu sistematikoan koordinazioa hobetzeko premia, nahiz eta ez duten maila berean jartzen koordinazio hori. Era horretara, plan batzuek Eusko Jaurlaritzaren barneko koordinazioa aipatzen dute kontuan, eta beste batzuek, berriz, beste erakunde batzuek ere hartzen dituzte kontuan, hala nola EB edo Espainiako estatua.

Aipatu beharra dago Eusko Jaurlaritzako sailentzat GPKaren inguruko lana erronka nahiko berritzailetzat hartzen dela. Itxuraz ikuspegi horretatik lanean hasteagatik nahiko interesa badago ere, elkarriketetan behin eta berriz errepikatu da lan berri bat dela euskal administrazio publikoarentzat. Ildo horretatik, beharrezkoa da aipatzea zein gutxi ezagutzen den gai hori gaur egun administrazio horren baitan.

Solidaritatea eta arazo globalekiko konpromisoa sustatzeko hezkuntzaren politika garrantzi handikoa denez, 2.3.3 epigrafean gai horri buruzko azterketa berezia egiten da, politiken koherentziari dagokionez. Ildo horretatik, aipatu liteke hezkuntzaren eremua zaila dela GPkari EAEn bultzada emateko ikuspegitik. Era horretara, lankidetzaren politikan garapenerako hezkuntzari emandako garrantzia gorabehera, Hezkuntza Saitetik osatutako estrategietan ez dira kezka horiek aipatu, are gehiago, atzera ere egin da nolabait orain dela hamar urte baino gehiago abian jarritako zenbait jardunbideri dagokionez. Hezkuntza Sailak azken hamar urteotan izan duen urruntze horren ondorioz, Garapenerako Hezkuntzaren alorrean egin diren

2. Garapenerako Politiken Koherentzia Euskal Autonomia Erkidegoan: diagnostikoa

ekimenak hezkuntza-politikaren periferiako ekimentzat hartu litezke, eta horien erantzukizuna gizartearen eremuko erakundeei egokitu zaie azkenik, besteak beste GGKEei.

Azkenik, aipatu beharra dago, sail baten edo beste baten plan estrategikoetatik haratago, zer interesa duten GPKaren ikuspegitik euskal administratibotik babestutako zenbait ekimenek. Horren adibide dira, beste hainbaten artean, emigrantei osasunaren alorrean emandako laguntzak; gai horretan Eusko Jaurlaritzak bere jarrerari eutsi dio, gobernu zentralaren irizpidearen aurrez aurre.

2.4. Garapenerako Politiken Koherentzia eta erakunde-egitura Euskadin

Nola eragiten dion GPKak erakundearen egiturari eta Euskadiko gobernuaren kulturari?

Txostenaren 2.4 atalean aztertzen dira erakunde-egitura, gobernu-kultura, funtzionarioen prestakuntza giza garapeneraren inguruko gaietan eta lankidetzaren sistemaren beraren zeregina Eusko Jaurlaritzaren baitan.

Azpimarratu beharreko lehenengo gauza da Eusko Jaurlaritzaren lan egiteko modua bertikala eta konpartimentuetan banatua izan dela tradizioz. Testuinguru horretan, bertako helburuen arabera ebaluatzen dira politikak, eta ez zeharkako ardatzen arabera (generoaren ikuspegiaren salbuespenarekin, beharbada), eta horrek zaildu egiten du, praktikan, ikuspegi koordinatuak sailen helburu berezien gainetik nagusitzea. Benetako erronka da hori GPKari dagokionez, izan ere, erabakiak hartzeko zeharkako instantzien premia baitakar nahitaez ondorioz.

Hala ere, aurrekoak ez du eragozpena izan behar azken urteetan euskal politika publikoen artean koordinazioak aurrera egin duela adierazteko, koherentzia eta elkarrizketa handiagoa lortzeko sustapenean. Horren abiapuntua ez da soilik izan azken gobernuak koordinazio handiagoa lortzeko premiaren uste sendoa, baita politika publikoen arteko giltzadura hobetzearen garrantziari buruz departamentuetan dagoen gero eta kontzientzia handiagoa ere.

Horrez gainera, giza garapeneraren alorrean lana koherentziaz egiteko oinarritzeko eta lehenetsutako osagaia da prestakuntza, baina muga handiak ditu. Aipatu beharreko lehenengo gaia da funtzionarioak hautatzeko prozesuetan –deialdietan eta oposizioetan lehenetsuta– ez direla kontuan hartzen garapenerarekin, iraunkortasunarekin eta lankidetzarekin zerikusia duten gaiak. Baina

Departamentuen arteko koordinazio (oraindik) ahularekin, giza garapeneraren alorreko prestakuntza faltarekin eta lankidetzaren sistemak berak GPKa sustatzeko dituen gaitasun eskasekin zerikusia duten hainbat muga ikusi dira.

horrez gainera, prestakuntza- eta eguneratze-ikastaroetan ere ez dira gai horiek kontuan hartzen. Ildo horretatik, administrazioko langileei nolabaiteko interesa atzeman bazaie ere garapenaren eta lankidetzaren inguruko gaiak lantzeko, gai horiei buruzko informazioa eta ezagutza eskasa da inondik ere.

Euskal lankidetzaren sistemari dagokionez, aipatzekoa da Agentziaren sorrera bera –eta bertan lan egiteko gaitasun handiko pertsonen hornitzea– zein gobernuaren organigramaren barruan duen kokalekua alderdi guztiz positiboak direla GPKa sustatzeko agenda diseinatzeke orduan. Hala ere, hainbat zailtasun atzeman dira, giza baliabideak mugatuak izatearen eta lankidetzaren eredia oso zatituta egotearen ondoriozkoak, eta hori dela eta ahalegin handia egin behar da kudeaketan eta ezin zaio lankidetzari multzoaren ikuspegia eman.

Azkenik, aipatu beharra dago euskal erakundearen konplexutasuna, izan ere, ez bada ere GPKari buruzko azterketaren osagai nagusia –ezer baino lehen, politika bakoitzaren erakunde arteko koordinazioaren eta koherentziaren gaiari eragiten diolako, berezirik–, kontuan hartu behar da EAEko zenbait gai berezitan aurrera egiteko oztopo erantsia izan daitekeela.

2.5. Garapenerako Politiken Koherentzia mugatzen eta sustatzen duten faktoreak EAEn: lehenengo hurbilpen bat

Bigarren atal honen ondorio gisa, txostenaren 2.5 epigrafeak GPKaren agenda bat sustatzeko EAEn hautemandako gaitasun eta muga nagusiak laburtzen ditu. Kategoria hauekin lotzen dira gaitasun eta muga horiek: i) lankidetzaren alorreko euskal sistemarekin eta GPKaren agendaren kontsiderazioarekin lotura dutenak; ii) garapenaren ideiarekin kontsiderazioarekin eta gobernu-ekintzan duen tratamendurekin lotura dutenak; iii) onartutako legeekin eta zabalduetako programa eta politikarekin lotura dutenak; iv) borondate politikoarekin eta gobernuaren antolamendu-kulturarekin lotura dutenak; eta v) EAEn dauden gizarte-gaitasunekin lotura dutenak.

Euskal lankidetzaren sistemarekin lotura duten gaiak
eta GPKaren agendaren kontsiderazioa

Gaitasunak

Lehenik, azpimarratu beharra dago GPKaren agindua euskal lankidetzaren osatzen duten agiri estrategiko nagusietan txertatuta dagoela. Gainera, lankidetzaren politikak hartzen duen ikuspegi doktrinalak –eta bereziki plan zuzentzaileetan adierazten denak– giza garapenean eta iraunkortasunean aurrera egiteko beharrezkotzat jotzen diren beste politika batzuekin lotzen du alor horretako lana, eta hori bat dator GPKaren ondoriozko kezkekin. Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailetan egiaztatu da interes handia dagoela garapenerako lankidetzaren eremuko programetan parte hartzeari eta elkarrekin lan egiteari dagokionez.

Mugak

Esparru horretan egon litezkeen mugei dagokienez, aipatzekoa da oro har arrakala handia ikusi dela (doktrinala, politikoa eta teknikoa) garapenerako lankidetzaren eremuaren (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia) eta Eusko Jaurlaritzaren gainerako sailen artean. Era horretara, distantzia nabarmena ikusi da lankidetzaren eremuko agiri estrategikoetan hartutako ikuspegiaren –zeinetan gogoeta sakona proposatzen den nagusi den ereduari buruz– eta Eusko Jaurlaritzaren gainerako agiri estrategikoen artean, izan ere, azken horiek kasuren batean giza garapenaren ikuspegia txertatzen badute ere edo generoko, iraunkortasuneko edo giza eskubideen alorreko gaiak aipatzen badituzte ere, ez dute zalantzan jartzen indarrean den garapen-ereduaren bideragarritasuna.

Arrakala handia ikusi da (doktrinala, politikoa eta teknikoa) lankidetzaren eremuaren eta gainerako euskal politika publikoen artean.

Beste alde batetik, zenbait agiri ofizialetan adierazten bada ere beharrezkoa dela GPKaren bidetik aurrera egitea, egia da ez dela doktrina bat osatu adierazten duena zer ulertzen duen Eusko Jaurlaritzak –edo Agentziak berak– gai horri buruz, eta orobat GPKaren agendak Euskadin eduki beharko lukeen garrantziari, neurriei eta ezaugarriei buruz. Gainera, euskal lankidetzaren sistemak hainbat ezaugarri berezi ditu GPKan aurrera egiteko murrizketa izan litezkeenak: i) Lankidetzaren Euskal Agentzia giza baliabide eskasez hornitzea GPKaren ondoriozko erronka berriak proposatzeko; ii) lankidetzaren proiektuen eta –programen deialdien kudeaketarekin zerikusia duten zereginetara bideratutako lanaren inertzia; iii) lankidetzaren GGKEen esparrua da bereziki, eta esparru horretan sustapena eta finantziarioa Eusko Jaurlaritzari dagozkio.

Garapenaren ideiarekin kontsiderazioarekin eta gobernu-ekintzan duen tratamenduarekin zerikusia duten gaiak

Gaitasunak

Bai gobernu-programan bai aztertutako agiri askotan, argia da pertsonak ekintza publikoaren erdigunean jartzearen aldeko apustua, eta hori guztiz bat dator giza garapenaren ideiarekin. Eusko Jaurlaritzaren nortasun ikurra da ekintza publikoaren diseinuan giza garapenean oinarritutako filosofia txertatzea, baina joera hori ez da ez estatuz azpiko beste gobernu batzuetan ez gobernu zentralean atzematen.

Bai gobernu-programan bai aztertutako agiri askotan, argia da pertsonak ekintza publikoaren erdigunean jartzearen aldeko apustua.

Mugak

EAEko zenbait plangintza-agiritan –bereziki ekonomiaren eremuarekin zerikusia dutenetan– konbentzionala da garapenaren ikuspegia, eta baita alde bakarrekoa ere, giza garapenaren oinarrietatik guztiz urrun. Agiri horietan agertzen den garapenaren ikuspegia hazkuntzaren

edo lehiakortasunaren erako ideietan oinarritzen da, eta ideia horiek gehiegizko zehaztapenik gabe adierazten eta erabiltzen dira. Era berean, lehiakortasunaren kontzeptua, zenbaitetan, helburu gisa planteatzen da, kontuan hartu gabe kontzeptu horrek lotuta egon beharko lukeela eraginkortasun sozial eta ekologiko handiagoa lortzearekin.

Onartutako legeekin eta aurrera eramandako programekin eta politikekin zerikusia duten gaiak

Gaitasunak

Lege-esparruari dagokionez, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legean kontuan hartutakoaz haratago, Euskadin nahiko esperientzia nabarmenak daude GPKaren gaiarekin zerikusia dutenak. Hala gertatu zen, esate baterako, 2004an Eusko Jaurlaritzak Legegintzako Herri Ekimenaren onespenearekin, hau da, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasun Gutuna izenez ezagutzen denarekin. Era berean, azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzaren esperientzia gobernu zentralaren kontra agertu zenean egoera irregularrean zeuden immigranteei osasun-txartela kentzeari buruz.

Eusko Jaurlaritzak onartutako Planei eta Politikei dagokienez ere hainbat alderdi daude azpimarratzea merezi dutenak eta abiapuntu egokia direnak GPKari dagozkion gaiak planteatzeko. Nazioartekotzeko euskal estrategian arazo orokorrei aurre egin beharraz eta Euskadik nazioarteko eragile gisa duen erantzukizunaz aurreikusitako xedapenen kasua da hori –Basque Country–. Eta hori da, halaber, eta modu nabarmenean, *Ingurumenaren IV. Esparru Programan* onartutako osoko ikuspegia, zeinetan arazoaren zeharkako ikuspegia agertzen den, politiken koherentziaren alde eginez.

Era berean, kontuak emateari eta gardentasunari dagokion guztiak GPKan duen garrantzia kontuan hartuta, egokia da azpimarratzea zer ahalegin egin den Irekia zerbitzuan informazio publikoan eta kontuak ematean oinarritutako politikaren alde.

Mugak

Eusko Jaurlaritzaren politika publikoen diseinuak eta inplementazioak ez ditu, oro har, politika horiek eduki zezaketen kanpo-eraginak kontuan hartzen.

Eremu horretan azpimarratu beharreko lehenengo gauza da Eusko Jaurlaritzaren baitan landutako politika publikoen diseinuan eta inplementazioan ez dela kontuan hartu politika horiek eduki ditzaketen kanpo-eraginak. Garrantzi berezia dute, ildo horretatik, enpresak nazioartekotzen laguntzeko programek, ez dituztelako aintzat hartzen egon litezkeen gatazkak eta ez dutelako euskal enpresek kanpoan egiten dituzten ekimenen jarraipena eta kontrola egiteko mekanismorik ezartzen.

2. Garapenerako Politiken Koherentzia Euskal Autonomia Erkidegoan: diagnostikoa

Bada beste gai bat onartutako politikekin zerikusia duena, alegia *Kanpo Ekintza Planean* ez dela loturarik egiten politikaren eta garapenaren lankidetzari dagokion alderdiaren artean. Bereizketa hori handicap argia da giza garapenaren ikuspegia kanpo-ekintzan txertatzeko garaian, eta baita eremu horretan GPKarekin lotura duten erronka bereziak proposatzeko garaian ere.

Gainera, ezinbestekoa da aipatzea zer muga sortzen diren Hezkuntza Sailaren (eta bertan osatutako estrategien) eta gobernuaren baitan garapenerako lankidetzaren ardura duten instantzien arteko urruntasunaren ondorioz. Oztopo bereziki garrantzitsua da kontuan hartzen bada zer garrantzi duen garapenerako hezkuntzak GPKan aurrera egiteko.

Borondate politikoarekin eta gobernuaren antolamendu-kulturarekin zerikusia duten gaiak

Gaitasunak

Lehenik, eremu horren barruan azpimarratu beharra dago azken urteotan hainbat urrats egin direla zenbait sail eta politika publikorekin zerikusia duten zeharkako helburuen eta jardunbideen sustapenari dagokionez. Honako hauek dira sail horietako batzuk: genero-berdintasuna, ingurumenaren iraunkortasuna eta giza eskubideak. Beraz, horiek bat datoz garapenerako lankidetzaren plan estrategikoetan definitutako zeharkako lehentasunekin. Era berean, Koordinazio Zuzendaritza bat egotea garrantziko gaitasuna da, izan ere, zuzendaritza hori garrantzi bereziko organoa izan liteke gai horietan aurrera egiteko.

Garrantziko gaitasuna da Eusko Jaurlaritzak EAEn GPKaren aldeko lanean aurrera egiteko azaldutako borondatea.

Beste alde batetik, behar-beharrezkoa da aipatzea Eusko Jaurlaritzak GPKari buruz EAEn egindako diagnostikoan aurrera egiteko eta esparru horretan inplementatu litezkeen neurriak aztertzeke adierazi duen borondatea. Horrek guztiak abiatzeko konpromiso bat adierazten du, eta gaitasun handiko osagaia da hori GPKari dagokionez.

Mugak

Eremu horretan egon litezkeen mugei dagokionez, lehenik logika burokratikoak eta korporatiboak daudela adieraziko dugu, eta horren ondorioz gobernu-kultura konpartimentuetan banatuta dagoela eta bertikala dela, eta horrek, gainera, zailtasun osagarriak eragin ditzake GPKari dagokionez. Euskal funtzionario gehienek oso ezagutza eskasa dute garapena dimentsio anitzeko ideiatzat hartzen duen ikuspegiari buruz eta arazo globalekin zerikusia duten gaiari buruz, eta hori muga bat izan liteke.

Azkenik, hainbat eragozpen instituzional bide daude euskal ekintza publikoan giza garapenaren ikuspegia txertatzeko. Era horretara, gai horiei buruzko ezagutza eta prestakuntza eskasaz

gainera, bi gai nagusi hauei buruzko erreparoa identifikatu litezke: alde batetik, zama osagarritzat har daitekeelako dagoeneko mardula den funtzionarioen agendarentzat, eta, beste aldetik, giza garapenaren ikuspegia txertatzeak gatazkak eragin ditzakeelako politika "gogorraren" beste helburu batzuekin.

EAEn eskumen-esparruarekin eta erakunde-egiturarekin zerikusia duten gaiak

Gaitasunak

Alderdi positiboak izan daitezkeen inguruan aipatuko dugu jarduteko tarte handia dagoela Eusko Jaurlaritzaren aldetik giza garapena sustatzeko politikak sustatzeko orduan. Garapenaren eragina duten politikei dagozkien eskumen asko –ingurumenarekin, gizarte-politikekin, genero-berdintasunarekin edo hezkuntza-politikarekin zerikusia dutenak bereziki– Eusko Jaurlaritzaren esku daude neurri batean edo guztiz. Euskal erakundearen gaitasun finantzarioa beste autonomia erkidegoetakoa baino handiagoa da garrantzi handiagoko zenbait politika garatzeko aukerari dagokionez, eta jarduera jakin batzuen sustapenean ere eragin dezake.

Mugak

GPKaren oso sentibera diren zenbait gaitan eskumenik ez edukitzea muga nabarmena da Euskadin agenda hori sustatu ahal izateko.

Edonola ere, GPKaren oso sentibera diren zenbait gaitan eskumenik ez edukitzeak txanponaren beste alde bat adierazten du eta muga nabarmena da giza garapenarekin eta iraunkortasunarekin konpromiso handiagoa edukiko duen agenda publikoa sustatu ahal izateko. Ildo horretatik, beharrezkoa da gogoratzea gai horretan funtsezkoak diren zenbait eskumen –hala nola nekazaritza, arrantza, merkataritza edo atzerriko inbertsioa– EBren baitan daudela bereziki, eta beste batzuk, berriz, Espainiako Gobernuak dituela; horrek guztiak, beraz, murriztu egiten du Eusko Jaurlaritzaren gaitasuna GPKaren agendari ikuspegi osoago batetik aurre egiteko.

Azkenik aipatu beharra dago zer muga eragiten duen GPKan aurrera egiteko EAEn egitura instituzionalaren konplexutasunak eta eskumenen banaketak gobernuaren, aldundien eta udalen artean; hori dela eta, ahalegin berezia egin behar litzateke Garapenerako Lankidetzaren Erakundearen arteko Batzordeak gai horri dagokionez protagonismo handiagoa har zezan.

EAEEn gizarte zibilaren erakundeen gaitasunarekin zerikusia duten gaiak

Gaitasunak

Interes-eremuetako bat GGKEk egiten duten lanean datza, eta baita Euskadiko GGKEen Koordinatzaileak GPKan oinarritutako agenda batean aurrera egitearen aldeko jarreran ere. Koordinatzaile horrek koherentzia sustatzera bideratutako eragin-ildo politikoa osatu du, eta horrek aditzera ematen du hainbat sinergia sozial aipagarri daudela GPKaren sustapena bermatzeko. Horrez gainera, erakunde horiek Garapenerako Hezkuntza sustatzeko premia adierazi dute behin eta berriro, funtsezko osagaitzat hartzen baitute hori herritar kritikoak eta konprometituak sortzeko, hain zuzen ere, gobernuek aurrera eramaten dituzten politikek beste gizarte batzuetako eskubideetan eta aukeretan ondorioak dituztela onartzeko gai izango diren herritarrak sortzeko.

Ildo berean, aipatzekoa da beste gizarte-erakunde batzuek egiten duten lana, hala nola Immigranteei Laguntza Emateko Euskadiko GKEen Koordinakundea, *Harresiak Apurtuz*, haren lana akuilua baita GPKarekin zerikusia duten zenbait gaitan aurrera egiteko.

Mugak

Aurreko atalean aipatutakoa gorabehera, GPKaren ideiarekin bat egiten duten euskal gizartearen erakunde askok zenbait muga dituzte eremu horretan aurrera egiteko. Horrek zerikusia du, bai erakunde horiek gai horrekiko duten heterogeneotasunarekin eta sentiberatasun-mailarekin, bai politika publiko askoren jarraipenak eta kritikak dakarren zailtasun teknikoarekin. Gainera, gizarte-erakunde askok (hala nola ekologistak, feministak eta beste batzuek) Euskadin dauden arazoetan jarri dute arreta, kanporako proiektzioa aintzat hartu gabe, eta horrek mugatu egiten du GPKaren sustapenari ekarpenak egiteko gaitasuna.

Gizarte-erakundeen ikuspegi eta sentiberatasunek, GGKEak barne, eta gaiari dagozkion zailtasun teknikoek mugatu egiten dute gizartearen gaitasuna administrazioari GPKa handiagoa izan dadin eskatzeko eta sustatzeko.

3. Garapenerako Politiken Koherentzia Euskal Autonomia Erkidegoan: proposamenak

3.1. Egindako proposamenen zentzua, esparruak eta garrantzia


Proposamenen kapituluan bide-orri bat marraztu da, lanean zehar aztertu eta azaldutako zailtasunak kontuan hartuko dituen. Azpimarratu beharra dago, beraz, helburua ez dela berehalako jarduera-ildoak proposatzea –nahiz eta horietako batzuk nahiko epe laburrean jar litezkeen abian–, baizik eta bilatzen diren helburuak eta, aldi berean, horietan proposatzen diren esparrua eta baldintza bereziak kontuan hartuko dituen bidea marraztea.

Hainbat muga daude gai hau proposatzen denean, besteak beste: gaiaren berritasuna, euskal administrazio publikoek gaiaren inguruan duten ezagutza urria, eta gaiaren garrantziarekiko eta esanahiarekiko dagoen sentsibilizazio eskasa. Halaber, kontuan hartu da zein den ohiko jarduna politikak gauzatzeko orduan eta zer zailtasun dagoen lan egiteko moduan zeharkakotasunean eta koordinazioan oinarritutako logika txertatzen denean. Azkenik, hirugarren lekuan, EAEko erakundeen egituraren eta antolamenduaren ondoriozko baldintzak hartu dira kontuan.

Aurreko adierazpen horietatik abiatuta, azken kapituluan bildutako proposamenak hiru ardatz nagusiren inguruan egituratu dira: doktrina, politika eta antolamendua:

- a) **Doktrinaren esparrua da estrategia ororen oinarria.** Zaila dirudi GPkan aurrera egitea, haren esanahia, oinarria, irismena edo ondorioak ezagutzen ez badira. Horregatik, gobernuaren baitan gai horri buruzko ezagutza sustatzera bideratu beharko lirateke proposamenetako batzuk, eta baita GPkaren inguruan kontsentsu zabal bat lortzera ere, indar politikoak zein gizarte-eragileak bildu beharko lituzkeena. Estrategiaren oinarria finkatzea eta GPkaren zergatia argi edukitzea da, beraz, lehenengo urrats saihestezina.
- b) **Eremu politikoa da hurrengo urratsa,** eta beharrezkoa da GPkaren agenda bat gauzatzeko lehenetsutako zenbait eremu proposatzea; horretarako, plangintzaren logika aldatu eta ikuspegi zabalagoa txertatu behar da, giza garapenarekin lotua oro har. Ildo horretatik, GPka zenbait departamentutako politikan edo gobernuaren plangintzarako esparru orokorrean txertatzeko, proposamenek hainbat ideia zehatz adierazi behar dituztela pentsatzen da. GPkaren agenda baten hasierako edukia definitzeko garrantzizkoa da zenbait lehenetsun eta jarduera-ildo politiko finkatzea, hau da, **zer** egin litekeen edo egin behar den.

- c) Azkenik, beharrezkoa da antolamenduari dagokion esparrua kontuan hartzea. Aipatu bezala, GPKaren agenda bat abian jartzeko beharrezkoak dira era horretako estrategia baten eskakizunak sustatzeko eta horiei aurre egiteko gai izango diren egiturak eta baliabideak. Beraz, gure ustez, proposamenek gai horri buruzko zenbait ideia zehaztu behar dituzte, eta horrek zuzenean eragiten dio aipatutako GPKaren agenda abian jartzeko moduari eta erabiliko diren baliabideei.



3.1. atalean azaldu bezala, hiru esparru horietan egindako proposamenen eta ekimenen zehaztaperen-maila ez da berdina kasu guztietan, hainbat faktoreren mendekoa baita. Faktore horien artean aipatzekoak dira gaien konplexutasun-maila, jarduera eremu batzuetan zein besteetan dagoen esperientzia, gizartearen eskakizuna, eta beste batzuk. Edonola ere, hemen aurkezten diren ardatzez gainera, azterketaren 3.3 atalean hainbat ekimen zehatz proposatzen dira etorkizun hurbilenean garatzeko.

3.2. Garapenerako Politiken Koherentzian aurrera egiteko estrategia eta lehenetsutako jarduerak

GPKerako aurrerabidea ezin da asmoen aitortzen batera mugatu, eta argi definitutako estrategia bat behar du. Ildo horretatik, eta aipatutako hiru esparru horiei erreparatuz, estrategia orokor bat proposatzen da, eta, horretarako, hainbat ekimen egituratzen dira:

Doktrinaren esparrua

Nabarmena da zer arraila dagoen nazioarteko erakundeek garapena sustatzeko defendatzen dituzten printzipioen (justizia, pobreziaren kontrako borroka, iraunkortasuna...) eta emaitzek beste kasu batzuetan dituzten politika publiko askoren erreferenteen artean (ñabardurarik gabeko lehiakortasuna, hazkunde eutsiezina...).

3. Garapenerako Politiken Koherentzia Euskal Autonomia Erkidegoan: proposamenak

Euskadin ere badago tentsio hori; edonola ere, alderdi positibo gisa aipatu beharra dago hainbat politikatako erreferentziazko agiritan zenbateko maiztasunaz aipatzen diren giza garapena edo iraunkortasuna, besteak beste. Ikuspegi solidarioenak bermatzeko eta ikuspegi gatazkatsuenen irismena mugatzeko lehentasunezko zeregintzat hartzen dira:

- a) GPKa proposatzeko doktrina-esparru bat finkatzea Euskadin, giza garapenaren, iraunkortasunaren eta berdintasunaren printzipioetan oinarritua. Esparru hori eta horri lotutako oinarritzko zenbait erreferentzia finkatzea baliagarria izango litzateke gobernuaren borondate politikoaren lekukotasuna emateko eta helburuak baliabideen gainetik jartzea beharrezkoa dela adierazteko.
- b) Aurreko puntuan adierazitakoaren arabera, Euskadiko politika publikoak gidatzen dituen garapen-ideiari buruzko ikuspegi partekaturantz aurrera egitea, bai barneko mailan bai kanpokoan ere. Horretarako, zenbait hitzen zentzua argitu behar da, eta ikuspegien alborakuntza saihestu ahal den neurrian: hazkuntzaren eta giza garapenaren artean, lehiakortasunaren eta lankidetzaren artean, etab.
- c) Ikuspegi partekatu hori gobernuaren eta euskal administrazio publikoaren maila guztietan zabaldu dadin bultzatzea, eta, horretarako, ikuspegi hori benetan barneratzeko balio dezaketen mekanismoei laguntzea erantzukizun politikoak dituzten eta sektore publikoan diharduten langileen aldetik. Esparru horretan, euskal administrazioetan lankidetzapolitikaren barneko koherentziaren alde egitea kontuan hartzeko erreferentzia da.
- d) Giza garapenean, garapen iraunkor eta berdintasunezkoan oinarritutako eredu bat inspiratzen duten printzipioak hezkuntzaren esparruko maila guztietan zabaldu daitezzen sustatzea, halako eran non euskal curriculumak belaunaldi berrien prestakuntza kosmopolitari lagunduko dion, gaur egungo munduaren arazoak hobeto interpretatzeko eta Euskadin zein mundu osoan modu arduratsu eta solidarioan pertsonen ongizatea eta duintasuna lortzeko proposatzen diren erronkei aurre egiteko.
- e) Gizarte osora eta, oso modu berezian, izaera publikoko komunikabideetara proiektatzea garapen-eredu baten alde lan egiteko premia –Euskadirentzat zein munduko gainerako lurraldeentzat– aurretik aipatutako printzipioetan oinarrituta. Halako eran printzipio horiek gizartearen hainbat eremutan aurrera egingo dute, eta horrela hobeto ulertu eta onartuko da erakunde publikoek GPKaren alorrean egiten duten lana.

Politikaren esparrua

Esparru horretan, lehentasunak finkatuko dituen eta eragileek partekatuzeko gida gisa balioko duen jarduera-plan bat sustatuko da, GPKa ekintza politikoan txertatzeko.

Horretarako, beharrezkotzat jotzen da orain arte garapenerako lankidetzak gobernu-ekintzaren barruan izan duen bereizketa gainditzea. Beste alde batetik, kasuen arabera plangintza-logikak ikusi dira, eta baita ekonomiarekin lotura duten sailen artean urrun samar dauden ikuspegiak ere, ikuspegi sozialagoa dutenen aurrez aurre, eta horietan aurrera egitea beharrezkoa da.

Horrekin batera doa politika publikoetan zeharkako gaiak txertatzeko zailtasuna; hori dela eta, funtsezkoak izango dira esparru honetan sail guztiei sinestarazteko lana eta konbentzitzeko premia. Gogoeta horiek abiapuntu hartuta, honakoa proposatzen da:

- a) Politika publikoak osatzen direnean ikuspegi global eta kosmopolita bat txertatzea; honela, kasu guztietan atzeman ahalko dira horien kanpoko ondorioak. Horretarako, helburu hori ziurtatuko duten prozedurak ezarri beharko dira.
- b) Euskal gobernuko sail eta instantzia guztietan garapenerako lankidetzan aurrera eramandako jarduerak ezagutzea; honela, kontuan hartuko dira esperientzia horiek guztiak eta horietatik aterako diren GPKari buruzko eztabaidan lagungarri izango diren zenbait ondorio.
- c) GPKaren izenean, lankidetzaren politika pixkana gobernuaren kanpoko ekintzan txertatu dadin sustatzea. Bat etortze hori Euskadi munduan modu solidario eta arduratsuagoan txertatzen laguntzeko modua dela pentsatzen da, era horretara saihestu egiten baita txertatze horrek lankidetzaren politika desnaturalizatuko duten beste interes batzuk (merkataritzaren edo politikaren alorrekoak) ahalbidetzea.
- d) Garapenerako Hezkuntza –edo Herritartasun Globalerako Hezkuntza- gobernuaren hezkuntza-politikan txertatzeko beharrezko lanari ekitea, baterako ikuspegi batetik. Horretarako, ezinbestekotzat hartzen da bultzada orokorra eta koordinatua, zeinetan modu aktiboan parte hartuko duten hezkuntzaren komunitateak eta nahasturik dauden eragileek eta sektoreek, azterketan zehar eremu horretan atzeman eta aipatu diren eskasiak gainditu ahal izateko.
- e) GPKaren ikuspegitik politika eta estrategia sektorialek euskal ekintza publikoaren eremu jakin batzuetan –nekazaritza, ingurumena, enpresen nazioartekotzea edo beste batzuk- dituzten ondorioen ezagutzan aurrera egitea, eta, horretarako, gatazkak identifikatzeko eta etorkizunerako jarduera-ildoak proposatzeko beharrezkoak diren azterketak egitea.

Antolamenduaren alorra

Azkenik, GPKan aurrera egiteak ondorioz dakar, halaber, antolamendu-egiturak eta lan-moduak aldatzea politika publikoen ingurune konplexuan, bere baldintza legal, tekniko eta administratiboekin.

Aldaketei aurre egiteko, beharrezkoa da abiapuntutzat hartzea inertziak GPKaren kontra egin dezaketela, hurbilenerako eskakizunetatik pixka bat urrunduta dagoen agenda delako. Beste alde batetik, beharrezkoa da sailen arteko elkarrikeria sendotzea, eta orobat ekimenak sustatuko dituzten tresna eta instantzia zehatzak definitzea, eta jarraipenerako eta kontrolerako mekanismoak ezartzea.

Horretarako, esparru estrategiko horren barruan, hainbat ekimen proposatzen dira antolamenduari dagokionez:

3. Garapenerako Politiken Koherentzia Euskal Autonomia Erkidegoan: proposamenak

- a) GPKa sustatu, koordinatu eta lider izateko balioko duten egitura bereziak sortu daitezzen bultzatzea. Egitura horiek, duten konplexutasuna eta dituzten inertiak kontuan hartuta, goren mailako babes politikoa eduki beharko lukete –eraginkorrak izateko– gobernuaren baitan.
- b) Gobernuko sailek eta instantziek sektoreko politikak osatzean GPKarekin lotura duten zenbait baldintza formal beteko dituztela ziurtatzeko modua aztertzea; horrek ondorioz helburu horretara bideratutako instantziak eta tresnak kontuan hartzea dakar.
- c) Sailen arteko gaur egungo batzordeen esperientzia, helburuak, funtzioak eta osaera aztertzea, esperientzia horiek GPKan aurrera egiteko balio dezaten. Hori baliagarria izango litzateke, aldi berean, batzordeen funtzionamendua arrazionalizatzeko, eta, horrela, saihestu egingo litzateke batzuek besteen gainetik agertzea.
- d) GPKaren jarraipena eta kontrola egiteko zereginak ziurtatzea, eta horretarako garrantzi berezia hartzen du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari eta hari gaur egungo legediaren arabera agindutako zereginetako batzuk betetzearekin zerikusia duen orok.
- e) Eusko Jaurlaritzak Euskadiz haratago kokatutako erabaki politikoko esparruetan presentzia aktiboa edukitzeko bideak aztertzea eta bultzatzea; politika horietatik ondorioztatu liteke zer politika diren, GPKari dagokionez, Euskaditik proposatutako garapen-helburuei buruz kontraesankorrak.

Epilogo: Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin, Garapenerako Laguntza Ofizialaz Haratago

Lan honen aurkezpenean azaldu bezala, GPKa garapenerako lankidetzaren eremuan sortutako ideia bat da, azken hamarraldietan Garapenerako Laguntza Ofizialek gaur egungo mundu globalizatuan garapenaren erronkei aurre egiteko dituzten mugei buruz sortutako eztabaiden babesean. Hori kontuan hartuta, bereziki eremu horretan jarri du ikerketak arreta, eta saiatu da Eusko Jaurlaritzaren hainbat politika aztertzen, kontuan hartuta garapenerako lankidetzaplanak eta gai horri buruzko nazioarteko zuzentarauek eta gomendioek sortutako koherentzia-eskakizunak.

Edonola ere, aurretik esan bezala, garapen-arazoak, gaur egun, edonolako gizarteei eragiten diete, eta ez dira hartu behar *herrialde pobre* deituei baino ez dagokien zerbait balira bezala. Egiaz, badaude zenbait arazori aurre egiteko kanpoko laguntza gehiago behar duten gizarteak, baina garapen bidezkoagoa, gizatiarragoa eta iraunkorragoa lortzeko erronka herrialde guztiei dagokien zerbait da, eta ezin da pentsatu bat bera ere libre dagoenik gero eta desberdintasun, ezegonkortasun eta ziurgabetasun ekonomiko handiagoak, eskubideen murrizketak edo ingurumenaren mehatxuak eta arriskuak berarekin ekar ditzaketen arazoetatik. Horregatik, garapenaren erronkei beste herrialdeetan modu integral eta koherentean ekiteko beharrari buruz agerian gelditu diren zenbait kontu Euskadiren kasuan ere aplika daitezke.

Azken hamarraldietan, euskal gizarteak ongizate estandar handiak lortu ditu, eta osatu duen gizarte-babeseko sistemari esker, arindu ahal izan ditu, alde zaharretatik, Europaren parte handi bat hondatzen ari den narriadura ekonomiko eta sozialaren ondorio negatiboak. Era berean, Euskadin abian jarri diren ingurumenaren alorreko politikek erakusten dute badagoela garapen iraunkorragoan oinarritutako eredu baterantz aurrera egiteko kezka, nahiz eta Euskadiko giza jarduerak ingurumenaren duen eraginak –eta etorkizuneko iraunkortasunerako arriskua– garrantzizkoa izaten jarraitzen duen. Emakundek eta Eusko Jaurlaritzak babestutako generopolitikak ere funtsezko erreferentzia-puntuak dira gizarte bidezko eta berdintasunezkoago bat lortzeko. Edonola ere, eta munduko Giza Garapenaren Indize handienetako bat duen lurraldea bada ere, Euskadiren orainak eta etorkizunak zalantza asko sortzen ditu bertako garapenereduaren ikuspegitik.

Munduko ekonomian kokatu den joeraren arabera, gero eta jarduera gehiago gelditzen dira arauz kanpo, gizarte-eskubideak ezabatzen dira, lan-merkatua malgutzen eta urritzen da, hainbat gaitan ez dira nazioarteko hitzarmenak betetzen, enpresen epe laburrerako etekinak muga ditzaketen ingurumenaren alorreko araudiak saihesten dira, ia dena onartzen da hazkundearen izenean... Eta hori guztia mehatxu bat da, herrialde batzuei zein besteei eragiten diena, eta gero eta gehiago mugatzen du espazio publikoa erabakiak hartzeko –horietako asko pixkana esku pribatueta gelditzen ari dira– eta gobernuen ekintza politikorako. Testuinguru horretan, arrazoizkoa dirudi lankidetzak-politikei buruz eskatzen den koherentzia –berdintasuna, iraunkortasuna eta giza eskubideen errespetua helburuen kontra praktikan egin ez dezaten– barneko politikentzat ere ezin saihestuzko erreferentzia bat izatea. Ez litzateke logikoa izango, gai horiei dagokienez, lankidetzak-politikan egiten diren eskakizunak gero ez kontuan hartzea Euskadin bilatzen den garapena proposatzen denean.

Hori guztia dela eta, lan honek eztabaida zabalago bati ateak irekitzen dizkionaren ustea dugu; bai euskal gizarteak bai bertako ordezkari politikoek datozen urteetan eztabaida horri heldu beharko liokete, izan ere, administrazio publikoaren erantzukizuna diren gaiei eragiten badie ere, defendatzen diren giza garapenaren eta iraunkortasunaren helburuetara hurbiltzen edo urruntzen lagun diezaguke. Gobernuaren eta sozietate publikoen kontratazio-politikak, gizarte-eskubideei, genero-berdintasunari eta lan duinaren defentsari dagokionez; erosketa publikoen politikak eta horiek ingurumenaren duten eraginarekin eta baliatutako fabrikazio-prozesuekin duten harremana; garraio-eredu batzuen eta besteen sustapena; kontsumo arduratsuaren eta birziklatzearen defentsa; elikadura osasungarria sustatzea; balioetan hezteko ereduak eta herritartasunaren aldeko hezkuntza sustatzea; immigranteen eskubideen babesa, etab... horiek guztiak Garapenerako Politiken Koherentzia tresna baliagarria bihurtzeko aukera izan daitezke, honela, Euskal Herria bidezkoagoa eta bizitzeko egokiagoa izan dadin, mundu bidezkoago baten eta bizitzeko egokiago baten barruan.

Garapenerako Politiken Koherentzia funtsezko erreferentzia da garapenerako lankidetzaren eta laguntza sistemako aldatzeko buruzko nazioarteko eztabaidetan. Testuinguru honetan, aurkeztu den txostenaren laburpen honek debaterako ekarpen bat suposatzen du, azpi-estatuko esparru administratibo batetik (Euskal Autonomia Erkidegoa) abiatuta. Txostena gaiari buruzko diagnostiko zabal batetik abiatzen da, ekintzarako lerro batzuk aurkezteko asmoarekin.

La Coherencia de Políticas para el Desarrollo constituye una referencia fundamental en los debates internacionales sobre la cooperación para el desarrollo y la reforma del sistema de ayuda. En este marco, el Informe cuyo resumen se presenta aquí constituye una aportación a dicho debate desde la perspectiva de un ámbito administrativo subestatal –como es el caso de la Comunidad Autónoma de Euskadi–, a partir de un amplio diagnóstico sobre el tema y de la presentación de algunas posibles líneas de actuación

Policy Coherence for Development is a key reference in international discussions on development cooperation and aid reform. In this context, the report, whose summary is presented here, is a contribution to this debate from the perspective of a sub-state administrative level, in this case the Basque Country, based on a broad analysis of the issue and the presentation of some possible action lines.

